

7.2. FUNTSEZKO JARDUERA

Gure GKEak balorezko proposamena gauzatzeko eta gizartean benetako eragina duen proiektu bat eskaini ahal izateko, funtsezko jarduera multzo bat garatzen du. Funtsean, ekintza horiek gure baloreak transmititzea, herritarrekin konektatzea eta parte-hartze aktiboa sustatzea ahalbidetzen dute.

Gure GKEaren jardueren artean, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak dira lehentasun nagusia, pertsona askorengana iritsi, berehalako gizarte-inpaktua sortu eta oso denbora gutxian herritarrak mobilizatzeko duten gaitasunagatik. Eduki bisualen bidez, azalpen eta sare sozialetan nahiz kalean egiten ditugun ekintzekin, Palestinako egoerari buruzko mezua modu argian zabaltzen dugu, gure lanaren motor nagusia bihurtuz. Horrekin batera, jarduera horiek aurrez aurreko puntuekin osatzen dira, zeintzuk Bilbon, Santurtzi edo Barakaldo bezalako udalerrietan egiten dira. Nahiz eta sare sozialen eragin bera ez izan, funtsezko eginkizuna betetzen duten komunitate sendo eta konfiantzazkoa eraikitzeko: elkarrizketen bidez, informazioa ematen dugu, zalantzak argitzen ditugu eta pertsonen benetako beharrak entzuten ditugu, hurbiltasun horrek GKEaren sinesgarritasuna eta lotura sozialak sendotzen baititu.



(Panpin Askeak GKEaren Gabonetako kanpaina webgunean.)

Bigarrenik, ikastetxetan eta gazte-zentroetan egindako tailerrak eta hitzaldiak daude. Kanpainak bezain publiko zabala lortzen ez duten arren, hezkuntza-sakontasuna askoz handiagoa da, elkarrizketarako guneak sortzea, zalantzak zuzenean erantzutea eta pentsamendu kritikoa sustatzea ahalbidetzen baitute. Jarduera hori bigarren postuan kokatzen da, parte-hartzaileengan eragin iraunkorragoa sortzen duelako eta gazteengan eta tokiko komunitateengan sentsibilizazio-oinarri sendoa delako.

Hirugarren lehentasuna webgune ofizialaren eta online dendaren kudeaketa da, proiektuaren iraunkortasunean funtsezko eginkizuna baitu. Plataforma honen bidez, informazioa zentralizatzen dugu, ekarpen solidarioak, harpidetzak eta bonuak ematen

ditugu, eta herritarrekiko komunikazio zuzena eta gardena mantentzen dugu. Eragina ez da kanpainak edo tailerrak bezain berehalakoa, baina ezinbestekoa da etengabeko parte-hartze egonkorra bermatzeko eta komunitateari edozein lekutatik irisgarria den espazio bat eskaintzeko.



(Panpin Askeak GKEaren webgunea eta online denda, parte-hartzea eta ekarpen solidarioak bultzatzeko.)

Azkenik, talde bezala ditugun barne-koordinazio eta kanpainen plangintza jarduerak proiektuaren egitura-oinarria dira; nahiz eta ez dagoen hainbeste jendeari zuzendua, ezinbesteko lehentasun estrategikoa dira. Hain zuzen ere, gainerako jarduera guztiek koherentziaz funtzionatzea ahalbidetzen dutenak dira: edukiak diseinatzeko ditugu, boluntarioak koordinatzeko ditugu, hezkuntza-materialak prestatzeko ditugu eta ikastetxeekin, elkarteekin eta tokiko erakundeekin harremanetan egoten gara. Jarduera hau zerrendako azken tokian dago, ez garrantzi txikiagoa izateagatik, baizik eta bere helburua euskarri-funtzioa delako; barne-antolaketa honi gabe, beste jardueretako bat ere ezingo litzateke gauzatu modu eraginkorrean.